

**Ebazpena: R 75/2022**

**Espedientea: 37/2020**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– honako erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea Gipuzkoan ohiko bizilekua duten bi hartzaileri ISMMTRk 2016. urteko PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori 37/2020 espediente zenbakiarekin izapidetzen ari da arbitraje-batzorde honetan.

## **I. AURREKARIAK**

1.- ISMMTRk JBST jaunari eta MCGZ andreari zegozkien 2016ko lan-etekinengatiko atxikipenak Estatuari ordaindu zizkion.

Lehenengoak ordainsariaren araberako langabeziagatiko prestazioa jasotzen du, Estatuko lurralde-administrazioari edo administrazio instituzionalari atxikita egon gabe, eta bigarrenak alarguntza-pentsioaren prestazio osagarria jasotzen

du, eta prestaziorako eskubidea sortu zuen hildakoa ere ez zen egon Estatuko lurralde-administrazioari edo administrazio instituzionalari atxikita.

**2.-** GFAk 2019ko uztailaren 19an eskatu zion Estatuari atxikipen horien bidalketa (2.481,50 euro).

**3.-** Hasiera batean ez zuten bidalketa egin; beraz, inhibizio-errekerimendua egin ondoren, eskumen-gatazka planteatu zen Arbitraje Batzordean.

**4.-** Ondoren, eta GFAk aurkeztutako frogak ikusita, ZAEAk GFaren eskaera onartu zuen, eta, ondorioz, galdu egin zen gerora prozeduraren xedea.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**1.-** Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66. artikulua Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla ezartzen du:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo horien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 7. artikulua, planteatutako eztabaidaren inguruabarrak kontuan hartuta interpretatuz gero.

**2.- Aplikatu beharreko arauak.**

Ekonomia Itunaren 7. artikulua, Laneko etekinak direla-eta egindako atxikipenei eta konturako sarrerei buruzko 12/2002 Legeak emandako jatorrizko idazkeran, honako hau adierazten zuen:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

(...)

*b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta hartzailearen ohiko bizilekua EAEn badago.*

(...)

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktiboei eta pasiboei buruzko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatu dena ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei».

Ekonomia Ituna aldatzen duen 28/2007 Legeak hamargarren xedapen gehigarria gehitu zuen; honako hau dio:

«Baldin eta, Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publikoren bat agentzia bihurtzen denean, erakunde autonomo edo enpresa-erakunde horiei dagokienez, 7. artikuluan erakunde autonomoentzat eta enpresa-erakunde publikoentzat ezarritako eskumen-araubidea aplikatuko da».

Horregatik guztiagatik, 10/2017 Legeak 7.Bi artikulua honela aldatu du:

«Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta erakunde publiko enpresarialetako funtzionarioei eta langileei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetakoei, Estatuan adskribatutako partzuergoetakoei, Estatuko fundazioetakoei, transferitu gabeko unibertsitate publikoetakoei eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintarizetakoei ere».

**3.-** ZAEAk GFaren eskumenari jaramon egiteak gatazkari amore ematea dakar, prozeduraren xedea gerora desagertzeagatik, eta horrek prozedura artxibatzea dakar, prozeduran pertsonatutako hirugarren interesdunik eta iritzia emateko eztabaidarik ez dagoelako.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- 37/2020 prozedura artxibatzea, prozeduraren xedea gerora galtzeagatik, ISMMTRk JBST jaunari eta MCGZ andreari ordaindutako 2016ko atxikipenak ordainarazteko eskumenari buruzko eztabaida desagertu delako.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ISMMTRri.